

Mari Narrunarrikoa (Txindokikoa)

Mari Narrunarrira ailegatu zen arrats batean; zaldi hegalaria batek eraman zuen zerua zeharkatuz, tximista baten antzera, euri zaparrada ikaragarri baten erdian. Egunak eta gauak pasa ziren euri-jasa hura geratu zen arte. Bitarte guzti horretan, Jainkosak bere haitzuloko labea piztu eta ogia egiten hasi zen, bertan pasako zuen egonaldirako. Halako batean, atertut zuen eta zerua urdin bezain garden agertu zen, baina Narrunarriko tontorra laino batek estaltzen zuen, gainean txapel bat izango balu bezalaxe.

–Damak labea piztu du! –Entzuten zen nonahi eskualde guztian. Pozaren pozez zegoen jendea; denboraldi batean eguraldi ekaitzek eta eguraldi txarrek ez zituzten haien uztak alferrik galduko.

Egun batean, artzain txiki batek bere artaldea eraman zuen Txindokiko hegaleko larreetara. Udaberri haserako egun zoragarri hartan, neskatxoa entretenitu egin zen loreak biltzen eta txori-habien bila, eguzki epeletan. Etxerako garaia iritsi eta artzaina ardiak biltzen hasi zen eta ardiak banan bana zenbatzen. Baina bat falta zuen, atzera eta aurrera behin eta berriz zenbatu baldin bazituen ere, ardi hura ez zen inon ere agertzen.

Neska koitaduak bidezidor eta aizpitarteak pasa zituen ardi galduaren bila; bazter guztiak miatu zituen, hala ere inondik ere ez zen ardi hura agertzen. Beraz, mendian gora abiatu zen, ea goiko larretan aurkitzen ote zuen bere ardia. Beldurrez betea egin zuen ibilbide guztia, askotan entzunak zituen Dama Narrunarrin zegoeneko kontuak: halakoa desagertu zela, beste hura ez zela geroztik agertu, zeharo erotu zenik ere bazen inguruan... Baina mendian gora joan ahala, lasaitzen hasi zen; han ez zen aparteko ezer gertatzen, dena lasai zegoen. Halako batean, ardia beeka entzun zuen, eta soinuari jarraituz sastraka batzuetara iritsi zen.

Ez bat eta ez bi, sastraka haiek baztertu eta kobazulo baten sarreran aurkitu zuen bere burua. Bitan pentsatu baino lehen, aurrera egin zuen eta emakume eder bat ikusi zuen. Artzainak sekula ikusitako ederrena zen hura; dena urrez jantzita zegoen eta urrezko goru batez ehuntzen ari zen inoiz ikusitako oihalik finena. Neska hor geratu zen, geldi-geldi, damak gorua nola mugitzen zuen begira-begira; inoiz ez zuen pentsatuko esku txiki haiek halako abiaduraz mugitzeko aukera zutenik. Baina halako batean, esku haiek gelditu ziren eta emakumeak aurrez aurre begiratu zion gure artzainari.

- Eta? Ez al dakizu hizketan? Hor egon behar al duzu tente bizi osoan? Ez duzu zertan beldurtu behar nire etxean. Sartu eta kontatu zertara etorri zaren.

Neskak kontatu zion bere gurasoak aspaldian hil zirela eta bakar-bakarrrik atera behar zuela bere bizimodua. Kontatu zion, baita ere, bere ugazabaren ardiak atera zituela mendira goiz hartan eta bat galdu egin zitzaiola. Horregatik ailegatu zela bere haitzuloko sarrerara.

Damak gozo-gozo begiratu zion neskari; laguntzaile bat behar zuela eta berarekin geratzea proposatu zion, gogotik ordainduko ziola eta bere artalde propioa erosi ahal izango zuela agindu zion.

Artzainak ez zuen bitan pentsatu behar izan; halako gozotasunik ez zuen inoiz atzeman eta damarekin geratu zen hurrengo zazpi urteetan. Damak irakatsi zion ogia egiten, ehunketan ere trebatu zuen. Bestalde, sendabelarrak erakutsi zizkion eta haien ezaugarri miresgarriak

bereritzen. Gainera, animalien hizkera ezagutzen, eguraldia aurreikusten... eta jainkosa batek dakizkien gauza asko eta asko.

Eguna egunari lotu eta, konturatu orduko, alde egiteko prestaketak egiten hasi zen dama. Zazpi urteak ia konturatu gabe pasa ziren eta beste egoitza batera joan behar zuen, beste lurralde batean bere dohainak banatzera; Anbotora edota Murumendira, agian.

–Denbora honetan nirekin egon zara, zintzo baino zintzoago, eta nik irakatsi dizudan guztia ikasi duzu. Nik joan beharra daukat, baina gogoz ordainduko nizula agindu nizun eta hona hemen nire oparia.

Eta ikatz zati handi bat eman zion neskari. Gero, desagertu zen sugarrez inguraturik eta neska harriturik geratu zen haitzuloaren aurrean, ikatz zatiari begira, bakar-bakarrik. Herriko bidea hartu zuen, mendian behera, ikatz puska zorroan sartuta. Herrira ailegatu zenean, harriturik ikusi zuen ikatza urre nola bilakatu zen bidaiari zehar. Damak bere hitza bete zuen eta aurrerantzean bizimodua ateratzeko arazorik ez zuen izango. Gainera, bere baitan gordeko zuen betiko damak eskaini zion maitasuna eta erakutsi zion begirunea, hura izan zen altxorrik ederrena.

Herrian oso pozik ikusi zuten neskatxa hura bueltan. Aspaldi hartan, bide bazter batean galduko ote zen, edota piztitzarren batek harrapatuta, berriz ikusteko esperantza galdua zeuden. Gainera, ikusi zuten denboraldi hartan emakume jakintsu eta eder bat bilakatuta bueltatu zela eta pozarren ospatu zuten haren buelta. Artzainak bere onurak eta jakinduria banatu zituen herrian eta behin eta berriz kontatu zituen Narrunarriko Andrearekin bizi izandako bizipenak.